


Lankide agurgarria:

Webex bideokonferentzia-tresna erabiltzeko UPV/EHuren kontratua 2023ko abuztuaren 31n amaituko da. Horregatik, bideokonferentzietan egindako grabazioen bat gorde nahi duenak, bere ekipo informatikoan edo USB unitate batean deskargatu eta gorde beharko ditu, **2023ko abuztuaren 31 baino lehen**.

Grabazioak deskargatzeko, Webexeko gune pertsonalera sartu behar da <https://ehu.webex.com> edo <https://ehu.eus/bilerak> helbideen bidez, eta grabazioen atalera sartu (1. gezia irudian).

Grabazioen atalean, grabazioak banan-banan deskarga daitezke, deskarga-ikono indibiduala sakatuz (2. gezia irudian), edo hainbat grabazio batera, deskargatu nahi direnak hautatuz (3. gezia irudian) eta deskarga-botoia sakatuz (4. gezia irudian).



Grabazioak gordetzeaz gain partekatu nahi badira, UPV/EHUK erabilgarri izan daitezkeen hainbat zerbitzu ditu:

- **Posta elektronikoko korporatiboa Microsoften M365 paketera migratuta duenak:**
 - o 1TB-ko gune bat du eskura, OneDrive (<https://support.microsoft.com/onedrive>) edo Stream (<https://www.microsoft.com/microsoft-365/microsoft-stream>) aplikazioen bidez bideoak gordetzeko eta partekatzeko.
- **Beste aukera bat:**
 - o ehuBox¹ zerbitzua erabil daiteke (<https://ehubox.ehu.eus/>), kontuan hartuta gordetako bideoek norberaren konturako dauden 50GB kuotatik kontsumituko direla. Zerbitzu hau fitxategiak biltegitzera eta deskargatzera bideratuta dago, ez bideoak Internet bidez bistaratzerara, arazoak sorbailitzake sare-konexioaren kalitatearen eta une horretan bideoan sartzen den jende-kopuruaren arabera.

Bi kasu horietako edozeinetan, grabazioa gorde ondoren, esteka partekatu beharko litzateke, posta bidez bidalita edo eGela/eGelaPin argitaratuta, ikasleen eskura jartzeko edo, hala badagokio, Webexeko grabazioetako estekak eguneratu.

Edozein zalantza edo gorabehera EAZren bidez kudeatu behar da (<https://www.ehu.eus/ikt-tic/eaz-cau-kontaktua-ordutegiak>)

Mila esker zuen laguntzagatik.



Mikel Villamañe Gironés
eCampuseko zuzendaria

¹ <https://www.ehu.eus/group/ikt-tic/ehubox>